



Hizkuntza-izenei *glotonimo* deritze. Grekotik dator termino hori, eta honako hitz hauek elkartuz sortua da:

- ◆ γλῶττα (*glôtta*) , «*hizkuntza*» esan nahi baitu.
- ◆ ὄνομα (*onoma*), «*izen*» esan nahi baitu.

Heteroglotonimoak eta *autoglotonimoak* bereizten dira arloko hizkera espezializatuan.



Heteroglotonimo
 deritzo hizkuntza
 bat izendatzeko
 auzokoek erabiltzen
 duten izenari.

Autoglotonimo
 deritzo beren
 hizkuntza izendatzeko
 hiztunek erabiltzen
 duten izenari.

*Lingua Vasconum, Lingua Navarrorum,
 Lingua Vasca, Limba Vasca, Llengua Vasca,
 Lengua Vasca, Langue Basque, Basque
 Language, Baskische Sprache, Baskische
 Täl, Baskitski Jazyk, Baskisk Sprog, Jelzik
 Baskiski, Bask Sprok, Baski Ezin, Bask Nielv,
 Vaskii Jazik, Basko Simi, Ibaskiki Glosa,
 Baskin Kieli, Baski Keeli, Baski Geld,
 Urrulimi Baski, Uzuelelu Vasko, Nkobe
 Vasco, Ludimi Bask, Bakeren Lezou, Aluga
 Baskia, Basuku Go, Pachike Yü, Bask Ki Ke,
 Leilali Bask, **Euskera, Üskara, Euskerie,**
Euskara:
Gure hizkuntza da.*

Iturria: *Minutu bateko manifestua*, Bernardo Atxaga, 1991



-ERA atzizkiaz osatzen dira euskaraz glotonimoetako asko:

amazigera
arabiera
aranera
bretainiera
egiptoera
eskoziera
esloveniera
faroera
filipinera

guaraniera
hebreera **hebraiera***
hungariera
kaxmirera
magyarrera
okzitaniera
txetxenera
ukrainera
...

Hiztegi Batua

&

Euskaltzaindiaren 53. araua:
"MUNDUKO ESTATUETAKO
HIZKUNTZA OFIZIALAK"



Beste glotonimo asko, aldiz, jentilizioak berak dira:

aleman

alemanera*

etrusko

etruskera*

frantses

frantsesera*

gaskoi

gaskoiera*

ingeles

ingelera*

katalan

katalanera*

Euskaltzaindiaren 53. araua:
"MUNDUKO ESTATUETAKO
HIZKUNTZA OFIZIALAK"



Hona beste hizkuntza-izen batzuk:

afrikaans

erromintxela

latin

latinera*

swahili

...

Euskaltzaindiaren 53. araua:
"MUNDUKO ESTATUETAKO
HIZKUNTZA OFIZIALAK"



Zenbait hizkuntzak bi forma onartzen dituzte:

asturiera *Sin. bable*
finlandiera *Sin. suomiera*
galiziera *Sin. galego*
gaztelania *Sin. espainiera*

georgiera *Sin. kartveliera*
greziera *Sin. greko grekera**
gaelera *Sin. gaeliko*
portugalera *Sin. portugez*

Gaztelera formak
 badauka sarrera
Hiztegi Batuan,
 baina **gaztelania**
 hobetsi da

Euskaltzaindiaren 53. araua:
 "MUNDUKO ESTATUETAKO
 HIZKUNTZA OFIZIALAK"




ADI!

euskara

euskera*

eskuara*

Hiztegi Batua





ADI!

erdara
 erdera*

Hiztegi Batua

Euskara ez den edozein hizkuntza da *erdara*.

- Beste **erdara** batean, esaterako ingelesean.
- Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze **erdaraz**...

Nolanahi ere den, sarri deitzen zaio horrela gaztelaniari Hegoaldean eta frantsesari Iparraldean.

- Zeren **erdarak** edo gaztelaniak mintzaira molde hau hartu baitu Arabiatik.
- Bastida (**erdaraz** La Bastide-Clairence), bere portu ttipiarekin.



Bukatzeko, ekar ditzagun hona euskalkien izenak:

Arabako euskara

bizkaiera

gipuzkera

lapurtera

goi(-)nafarrera

behe(-)nafarrera

zuberera

Euskaltzaindiaren 57. araua:
"EUSKAL HERRIALDEEN, HERRITARREN
ETA EUSKALKIEN IZENAK"



Zenbait erreferentzia

Euskaltzaindia (1996). 57. araua: Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak. Hemendik eskuratua: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0057.pdf

Euskaltzaindia (1999). 53. araua: Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak. Hemendik eskuratua: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0053.pdf

Uranga, Belen; Juaristi, Patxi; Idiazabal, Itziar; Barreña, Andoni; Amorrortu, Estibalitz (2005). Munduko hizkuntzen izenak euskaraz, *Uztaro* (54), 29-59.